

**22 de Diciembre, Campaña de Navidad**

## **ALEGRADE Y RENUEVA TU ESPERANZA**

**“ALEGRADE, LLENA DE GRACIA, DIOS ESTA CONTIGO” LC 1, 26**

- ♥ La alegría nada tiene que ver con la perfección moral, con la asepsia emocional, o con la ausencia de dolor, de sufrimiento o de aquello que nos molesta o no nos gusta. La alegría nada tiene que ver con la felicidad que nos dan las cosas o con el sueño de alcanzarlas algún día.
- ♥ La alegría, es un sentimiento que emerge de dentro, de las entrañas. Es una emoción reflejada en una actitud vital que cuando se expresa casi nos sorprende como a María. Nos sobresalta.
- ♥ Las personas cristianas, descubrimos que la alegría profunda nace de la coherencia entre el sentir de nuestra fe, la experiencia de vida en comunidad y nuestra acción para que el mundo sea más justo.
- ♥ Como en la exhortación apostólica ‘gaudete et exsultate’: la alegría y el regocijo de las bienaventuranzas, nos invita a ser personas mansas, pacientes, humildes; a mostrar alegría y a tener buen humor; a ser audaces; a ser firmes en la fe y en el ejercicio del discernimiento para descubrir lo que puedo dar en cada momento a quienes lo necesitan.
- ♥ Como María, respondemos con generosidad a la invitación de la vida, porque a través de esa confirmación Dios actúa derribando a los reyes de su trono, llenando de bienes a los hambrientos y despidiendo a los ricos con las manos vacías. La alegría de María es el gozo de una mujer creyente que se alegra en Dios Salvador, el que levanta a los humillados y dispersa a los soberbios.
- ♥ La alegría verdadera solo es posible en el corazón del que anhela y busca justicia, libertad y hermandad para todas las personas. María se alegra en Dios, porque viene a consumar la presencia de dios y la esperanza de las personas abandonadas.
- ♥ **Y desde luego, no renunciamos a la esperanza**, porque creemos y anunciamos que el amor de dios es tenaz y paciente, más grande, a pesar de todo, que las estrecheces, las maldades y las iniquidades humanas.



## Abenduak 22, Eguberrietako Karpaina

# POZTU, ETA BERRITU ZURE ITXAROPENA

“POZTU, GRAZIAZ BETEA, JAUNA ZUREKIN” Ic 1, 26

- ♥ Pozak ez du zerikusirik perfekzio moralarekin, hoztasun emozionalarekin, edota min eta sufrimendu ezarekin, edo gogaitzen gaituen edo gustatzen ez zaigunarekin. Pozak ez du zerikusirik gauzek edota hauek noizbait lortzeko ametsek ematen diguten zoriontasunarekin.
- ♥ Poza, barnetik sortzen den sentimendua da, muinetatik. bizi-jarrera batean islatzen den emozioa da; adierazten denean, ia harritu egiten gaituena, Maria bezala. Izu-ikaratu egiten gara.
- ♥ Kristauak ohartzen gara, poztasun sakona gure fedearen sentimenduaren, komunitateko bizi-esperientziaren eta mundua bidezkoagoa izateko gure ekintzaren koherentziatik sortzen dela.
- ♥ “Gaudete et exsultate” aholku apostolikoak dion antzera: dohatsutasunaren pozak, pertsona mantso, paziente eta apalak izatera gonbidatzen gaitu; poza isladatzera eta umoretsuak izatera; ausartak; fedean eta erabakiak hartzeko garaian irmoak; une bakoitzean behar dutenei zer eman diezaiekeden jakiteko.
- ♥ Mariak bezala, eskuzabaltasunez erantzuten diogu bizitzaren gonbitari, Jainkoak berrespen horren bidez erregeak tronutik botatzen dituelako, gosetuak ondasunez betetzen dituelako, eta aberatsak esku hutsik bidaltzen dituelako. Mariaren poza, Jainko Salbatzailearenengen pozten den emakume sinestun baten gozamena da, umiliatuak altxatu, eta harroputzak sakabanatzen dituena.
- ♥ Benetako poza, pertsona guztientzako justizia, askatasuna eta senidetasuna bilatzen dutenen bihotzean baino ez da posible. Maria Jainkoarenengen pozten da, Jainkoaren presentzia eta bertan behera utzitako pertsonen itxaropena gauzatzera datorrelako.
- ♥ **Eta, jakina, ez diogu itxaropenari uko egiten**, uste baitugu eta hala aitortzen, Jainkoaren maitasuna sendoa eta pazientea dela, gizakien estutasunak, gaiztakeriak eta bidegabekeriak baino handiagoa.

